

Arestiar hiztegi tipia.

Bigarren entregarako sarrera-gisa*

GABRIEL ARESTI (1933-1975)

Barkatu egin beharko dit euskaldun irakurleak, baldin neure Hiztegi Tipi honen bigarren entrega hau, hain berandu egiten badiot. Lehenbizikoaren azken inprenta-probak, gaitz tipi eta arin baina mingarri bat sendatzeagatik kirofanoan sar-erazia izan baino lehenxeago korrejitu nituen, eta ordutik hona ez dut egun osorik eduki; eritasun zahar bat lehertu zait barrenean (askotan egin dut haren aipamena neure eskribuetan), eta adimendua zorrotz edukitzeko ahaleginak mila oihartzun iratzarri dizkit menbrorik menbro; gibela ongi dabilkidanean, giltzurrunek faltatzen dute, eta urdabila zuzpertu ondoren, hesteek estiratzen naute. Erromeri honetan atxakiek ez dutela balio ba dakit, baina guzti honi iratxekitzen baldin badizkiot, ogia etxera ekartzeko kontaduriazko liburuen gainean erretako ordu luzeak, Jainkoak berak erran beharko du, nolako gogo santuak geldituko zaizkio gizonari, euskararen gaitztasunen kontra gauerdi-ondoak eta igande egunak soldata apur bategatik edo musu-truke hutsean neketan eta minetan gastatzeko.

Nonbait dio Axularrek, bere liburuan, honela, guti gora-behera, gizonak izan behar duela, hoge urterekin zorrotz, hoge eta hamarrekin indar, berrogeirekin adimendu, berrogei eta hamarrekin ondasun eta hirur-hogei-rekin debozio. Orain arte tokatu zaizkidan bi lehenak, ederki kunplitu ditut, hauek eta gure aitona Maurizio itzain palokariak ohi zioena, gizonak idiaren parekoa izan behar duela, eta ez adarretan, apatsean baizik, zapaltzen duen lekuan sakon markatu behar duelako urratsa.

Bi azkenak tokatu ez zaizkidala ongi dakidanez gero (ezkutuko zentzu batek erraten bide zion Axularri jeneralki biak doazala batera, ondasunak ongi gordatzeko ata-zarraila segur bat dela debozioa), berrogei urteetako frontera eta zedarria iragaten dudan momentuon, adimendutsutzeko orduak jo didala iruditzen zait. Baina lehen pausu hauetan egiteko nekeza iruditzen zait; apur bana ohitu beharko dut neure burua kondukta berri honetara. Atzo gutun ireki bat eskribatu nion Euskal-Herriari, Lur-eko liburu beltzean agertuko dena. Hura kondukta zaharreko azken oldarra eta apodera izan bedi. Eta egundo honekin adimenduaren bidea ebaki dezadan. Guztiz gaitz egiten bazait ere.

* Inoiz inprimatu ez zen bigarren liburukiaren aurkezpena zuen gogoan eta paperean, 1973ko urrian, G. Arestik lerro hauek mamitzean. Eritasun larriak jotako gizonak bizi nahiari emandako erantzuna, bere kezka eta aburu nagusien azalpena bihurtzen da. Aipamen berezia eskaintzen dio zenbaki honetan FLV. aldizkariak, olerkari, idazle eta hiztegitile euskaldunari. J.M.S.

Zeren, konparazio baterako, esku-arteak dut orain, Villasanteren azken liburua: «Axular: Mendea, gizona, liburua». Ba daki Jainkoak, eta ederki Villasantek ere, zein estimazio eta errespetu handian dudan Bizkaiko gure Luis errenteriarra. Modu berean dakite Jainkoak eta Mitxelenak, nola estimatzen eta errespetatzen dudan Gipuzkoako gure Luis errenteriarra. Enezat, euskal kulturaren bi jigant dira, agian mende honetako gorenak.

Baina Luis batek besteari, Villasantek Mitxelenari diotsanean, ezen euskararen batasuna erakutsi duena dela, orduan, egiazki erran behar dut, ez dudala nik ongi konprenitzen adimendu-moeta hau. Segurtzat ematen dudalako, Villasantek bere erranaren egiatitasunean sinesten duela. Eta ez dakit nola ahatz ahal dezakeen hain erraz eta olinpikoki, Arantzatzu baino lehen Baiona izan zela, Mitxelenak ez duela eskribatu euskara batuan 1968.-era arte, eta beste zenbait gertakari eta egitate, hemen, berriz ere modestia guztiak leku kirats eta hidoi batetara igorri nahi ez ditudalako, aipatuko ez ditudanak.

Altunak ere, inolako lausengua eta balakua egin nahi ukan zion Mitxelenari, denbora guztietako eskritorerik bikainen-tzat proklamatu zuenean. Nori berea da zuzenbidea. Eta guzti honekin injustizia nabarbena (sic) egiten zaio Mitxelenari, zeren bertute fiktiozkoek estal baititzakete bertute egiazkoak, eta pabo-errealaren lumak eta hegatsak jaunzten zaizkion arrano-errealak, barregarri eta irrigarri ikusten da.

Aurten lan guti egin dut neure Hiztegi Tipian. Aitortzen dut, ezagutzen dut; eta damu dut, damu, dolu, urriki eta atsekabe. Baina adimendu koberratu-berriak, egin dudan apurra jendartera ateratzera kontseilatzen eta agintzen dit. Gauza apurra eta guti-balioa da, ba dakit. Baina euskaldun irakurlea ezin eduki dezaket honela, igurikitza dudos honetan, itzaradopen ez-bai honetan. Bi letra baizik ez dira: E eta F. Jainkoak (zeinean ez dut sinesten), hurrengo letrak agudo eta sarri gertatzeko osagarri eta trenpea eman diezat.

Baina bide-nabar, eta bigarren entrega honen bigarren parte-karrean, neure beste lan bat presentatu behar eta nahi dut: «Klasikoen Dikzionario Sintetikoa: I. Leizarraga eta Axular». Baina lan hau esplikatu baino lehen, beste gauza bat esplikatzea zilegi bitzait, bai, sori, bide eta zuzen. Hiztegi hau zergatik erizten den «Hiztegi Tipia».

Askok, lehen entregaren tamainua eta izena konparaturik, gogoeta goganbehartsu eta suspizionatu batzuk egin dituzte. Ba dakit, eta ongi konprenitzen dut. Baina honela, tipi-tzat, kalifikatu nuenean, ez nintzen haren tamainu materialaz ari. Besterik nuen gogoan, besterik erran nahi ukan nuen.

Zeren Hiztegia, Dikzionarioa, BAT da, edo BAT izanen da, herri honek bere egiazko izaeraren bideak eta moduak eridenean dituen egunean. HURA, Euskal-Akademiaren eskutik edo, gure Hiztegi Nagusia izanen da. Anarterainoko guztiak, bere luzatasun edo laburtasuna, bere loditasun edo mehertasuna kontuan eduki gabe, hiztegi tipiak izanen dira, enea eta egin ditezkeen gainerako guztiak. Hau oinarritzat utzirik, neure harira bihur nadin.

Hiztegi hori burura eramaten hasiko den egunean, ez dira gure desirak, ametsak eta nahikundeak kontuan edukiko. Hizkuntza bat, gizonak adi ahal dezakeen gauza guztia bezala, gauza konkretu bat da, konplikatu baina konkretua; gure kasuan, haren lehen dirdirak harritan grabatu ziren orain bi mila urte; mila urte geroago paper batetan eskribatu ziren girstino fraide

baten eskutik, eta orain laur-ehun urte arte, ez zuen kontsistentzia formal bat hartu, Bernat Etxapareren liburua inprimatu zenean.

Ordutik hona paperez papere ailegatu zaiguna, hori da euskara, hori eta egungo egunean euskaraz mintzatzen den lekuetan entzuten dena, baldin inork badaki zer entzuten den euskaraz mintzatzen den lekuetan.

Ez dugu erran behar; Leizarragaren translazioetan irakurtzen diren gauza asko, ez dira euskara. «Translazio» hitza bera, ez da euskara, latin da. Honela dioena asto bat da. Zer erranen luke ingeles batek, baldin halakoak erranen balio «translation» hitza ez dela ingeles, latin baizik? Substantziatsuan izanen litzateke beraren ihardespena.

Lehen aipatutako liburuan, Villasantek berriz honela diosku:

«Leizarraga eta Axular: horra bi maisu, bi bide urratzaile (honela, sic. gioinik gabe, eta ez dira bide, urratzaile baizik), bi eskola».

Baina bi izenen arteko «eta» hori, Villasantek propioki erabiltzen ez duela iruditzen zait, bi eskolataz mintzatzen zaigunez gero; Villasantek «Leizarraga ezpa Axular» erran nahi ukan du, ene eritzian. Honela baldin ez bada, eta ene teoriarekin akort baldin badago, neure desenkusak eta eskusamenduak presentatzen dizkiot.

Axular, euskararen tesisa da (orain arteko gainerako guztiak, aranis-moa, azkuismoa, orixismoa, krutwigismoa, eta bai-eta euskara batuaren ene Hiztegiak, usteltzat eta kontradiktoriotzat eman behar dira, idealistak baitira, eta ez objektibitatean finkatuak), eta Leizarraga antitesisa. Orain, kontua hauxe da, kontua, koska, gakoa eta problema: Elkarrekin kontradiktorio direa, ala egiazko sintesis batetara ailega ahal daitekea?

Axularren eta Leizarragaren-flexioa berbalak atera nituenean (hau eta Altuna eta Oregi lagunekin izandako eztabaidak, Euskal-Akademiaren berbo laguntzaile batuari ene kontribuzioa dira), bide-batez haien lexikoa atera nuen. Leizarragarena, Akesolo maestru pare-gabearen deskontentamendu handiarekin (beti ahazten zait mandatu hau Akesolorentzat, Etxepareren beste edizio batetarako gai baldin bazaio: «Enguztazu» flexio berbala «indazu»-ren plural pasioba da; Akesolok argia ikusi baino lehen erran zuen Schuchardt-ek, baina alemanez), «Fontes Linguae Vasconum»-en atera nuen, baina Axularrena, Villasantek mila bider hobeago bat gertatzen zuela jakinik, kajoin batetan gorde nuen. Orain, sintesis hau prestatzeagatik, mahai-gainera ateratzen dut.

Eta sintesisa eginez gero, balio duela uste dut, ez dela kontradikziorik; hau dela euskararen batasunerako bide aproposa.

Ohar bat: Ez bedi irakurle sufritua ez izu, beldur eta ez ikara. Gure bi klasikoen ortografia igualatu eta homologu (sic) behar zen (oso antzekoak izanarren ere, eta mundu arrado horretan ez behaztoparik ez estropurik ez egiteagatik, U eta V alde batetik, eta bestetik I eta J-ren arteko diferentzia markatu nahi ukan dut. Bestela hitz bakotxaren ondoan, ortografia akademikora egin dut transkripzioa; gainera, eta titulu indikatibo hutsean, gaztelaniazko signifikantza «guti-gora-beherako» bat ematen dut).

Anitzek erraten dute, eta nik lehena: Euskal-Hiztegiaren ardura eta ansia, Euskal-Akademiak har dezala; baina Mitxelenak dio: Ez, nahi duenak har dezala, Aresti bera baldin bada ere. Baina Arestik ez du ezer irabazten hiztegiak hau moldatzearekin; osasuna galdu-beharragoa, girondinoen desprezioa, pezeta urri batzuk (kontadurian ordua hamar doble pagatzen dida-

te), eta ez inoiz denbora-pasa edo entretenigarri bat edukia. Ez, mesedez; ez, arren; ez otoi; ez, faborez! Euskal-Akademiak egin dezala. Eta gainera gauza bat: Hiztegi Tipian sartu dudan bezain beste ordu Hiztegi Nagusian sartzeko prest nago. Ezer ez kobratu eta bai asko pagatu baizik eginen ez dudala badakit ere, ez dit inporta. Bozgarritto bat geldituko zait, behintzat; konjuntuko obra batetan sarturik egonen naizen bezala, ez zait ohorerik tokatuko, ez, baina gutienez nori esker ona eman jakin gabe, euskal bihotz leial bat baino gehiago erdiratuko da euskaragandikako arrotasunez.

Lehenbizian, hizkuntzaren fondoa finkatu behar dugu. Hau izanen da lehen etapa. Hau sujeritzen dut: Har dezatela ene «Classicoen Dictionario Synthetico» hau, Villasantek eta berifika beza Axularren aportazioa, haren obra hain ongi ezagutzen duela demonstratu duelako; Akesolok, eta berifika beza Leizarragaren aportazioa, haren obra hain ongi ezagutzen duela afirmatzen duelako. Gero, hautatu egin behar dira fondo horretan Leizarraga eta Axularren konpainian sartuko ditugun gainerako autoreak, eta haien obrak aztertu eta examinatuko ditugun peoinak: Etxepareren kargua Sarasolari emanen nioke; Etxeberria Ziburukoarena Akesolori; ni Duvoisinin Biblia osoarekin atrebituko nintzateke; Arenatzari Frai Bartolome de Santa Tere-sarena emanen nioke, hain herrikide eta gogaide baitira biak; Tartasena Garmendiari; Agirre Asteazukoarena Albarezi; Oihenarterena Peileni; Leizarraga Elkanokoarena Satrustegiri; Etxeberri Sarakoarena Kintanari; Mogelena Basauriri; Añibarrorena Irigoieni; Mendibururena Lekuona gazteari, eta Kardaberazena Zavala uvearekinari. Eta autoreren bat gelditu baldin bazait tinta-ontzian, hortik dabilta beste mila euskaltzale sutsu, entregu, pizkor, kementsu, prestu... Euskaldun xori asko, gehienak oihaneko zuhamurik zuhamu, bestebatzuk eremuko harri-artearen desterraturik, eta, ez hain ugari baina guztirik interesantenak, kaiolan sarturik beste zenbait. Guztiak euskararen alde omen, baina nor bere albokoaren goganbeharrez eta despistez, zeren gauza bat baitago elkarrengandik separatzen, hentzen, berezten eta ebakitzen gaituena, zorioneko jabetza pribatu eta sakratua, kolore ederrretako zilar-jainko zuria eta urre-jainkosa horia, zeinen ezkontza ilejitimotik elektro-heroea sortu baita, gero primantza usurpatu zion beste elektro euli-eta xinaurri-jale Eszitiako itsasoetatik etorriak lekua ohostu ziona; ondasunak, ondasunak! Zein izen gezurrezko eta faltsoa duzuen! Zuek ez baitzarete ondasun! Zuek gaiztasun zarete!

Maradikatuak izan zaitezte, herri noble bat eta hizkuntza eder eta efikaz bat bere hondamendi eta galtzapenera baitaramazue!

1973, Urriaren hamalauan.
Ia-ko herrian

LABURPENA

Gabriel Arestik bere *Arestiar Hiztegi Tipia*-ren bigarren liburukiari hitzaurreko egina zion idazlan argitaragabea. Euskara idatziaren batasunerako lehen urratsetan bere lana ez zela behar bezala aipatzen, salatzen du besteak-beste. Asmo berrien artean *Classicoen Dictionario Syntheticoa* egitea proposatzen du lankideen izen zerrenda eta euron ikergaiak aipatuz.

RESUMEN

Trabajo inédito de Gabriel Aresti que hubiera servido de prólogo al segundo tomo de *Arestiar Hiztegi Tipia*. Se queja de que su actuación en la fase previa a los acuerdos sobre la unificación literaria del euskera no es debidamente reconocida. Anuncia asimismo el proyecto de realizar la obra *Classicoen Dictionario Syntheticoa* con una relación de posibles colaboradores y el estudio que a cada uno le sería encomendado.

RESUME

Travail inédit de Gabriel Aresti, qui aurait servi de prologue au deuxième tome de *Arestiar Hiztegi Tipia*. Il se plaint que son intervention dans la phase préalable aux accords sur l'unification littéraire de l'«euskera» ne soit pas pleinement reconnue. Il annonce également le projet de réalisation de l'ouvrage *Classicoen Dictionario Syntheticoa*, avec une liste des collaborateurs possibles et l'étude dont chacun d'entre eux serait chargé.

SUMMARY

An unpublished work by Gabriel Aresti, which would have been used as the foreword to the second volume of the *Arestiar Hiztegi Tipia* (Small Aresti Dictionary). He complains about the fact that his contribution to the preliminary stages of the agreements on the literary unification of the Basque language is not given the appropriate consideration. It also tells us about the projet to elaborate a work called *Klasikoen Dizkionario Sintetikoa* (Synthetic Classics Dictionary), with a list of possible collaborators and the task to be assigned to each one of them.

